

## BIZKAIA

## GALDAKANO

Tamala da baña, esan biarrian aurkitu-ten gera, egia da ta, erri auetan «Zeruko Argia» gitxi saltzen da eta errudun geu gera, beren irakurleok eta batez bere betako periodikuo saltzailea, alperrez eztogulako biar-litzakuen zabalkunderik egiten euskaltzalian artian. Jakinbiar dogu euraiaiko asko ta dirala Galdakao'n da baita erri askotan -be, enskerazko astekari bat dogula ezaktienak. Badago lotsagarri andiagorik euskaldun batzuentzat ori baño?

Egiya, Bizkaitarrentzat ezta ulertze-ko erraza gipuzkoarren euskera, bañan esaten dogun lez maite ba-dogu gure izkuntza, biartuta gogoz ikasi, irakurri eta bera indartuteko. Oietarako lagundu daigun «Zeruko Argia» euskal-asterokoari Euskal-erriko eguzkia izan litzake ta.

## AMERIKARA

Gure artian il bi igaro ta barriz Argentina'ra juan da il onen 7'an erriko seme Garaitar Yon euskaltzale azkarra.

Baita erriratu, guranteen doguz denoraldi bat igarotzeko Ginea Ekuatorial'etik etorri ta Gerediaga'tar Illari eta bere emazte Errosi. Pozituen gera adiskide zintzuak berriz eurok ain maite daben errian ikusi ta.

## EGUTEGIA

Arantzazuko Andra Mari'n egutegia, datorren urterako, erosi nai daben Galdakano'tarrak, —euskaldun guztiok erosi biar, dogu—, zuzendu Beobide'tar Permin'gana, berak salduen ditu ta.

Gabon jai zoriutsak opa dautsaguz «Zeruko Argia» ko Zuzendaritzako eta irakurle guztiari.

## BASAJUAN

## BERMEO

## EZKONTZA

Miren Sortez Garbia'ren egunian, eta Mañuas'ko Ama Karmengua'ren baseliza-tuko politian, alkartu dira, Erauzkin'tar Miren Koldobike neskatilla liraina eta, Gabantxo tar Joseba mutil azkarra. Batasun au, onetsi eben, Aita Patxi Prantzis-kotarrak, Bermeo'ko abesbatza —Orfeón Bermeano— kuak, zoli eta ederki kantatu ebien eliz eta eusko abesti bigunak. Zorionak danori.

## BESIGUA

Lengo egun batzuetan, arrainitxu gozo au, neikotxu koixu ebien gure ontzinoak. Garaia izan dok, la olan jarraituten daben itxasoa emokor.

## ANTXOIA

Ontzi nagosiak be, antxoie zerbait ekari dabe erriari. Tamalez selneurria oso merkia ibilli zan.

## AFRIKA'TARRAK

Deskeille dabiltaaz gure arraintziarik Freetown eta Adbijan aldetik. Batian arrain asko eza; bestian tramankulu kaltiak; urrenguan, osasun gitxia... nik dakit, zer geyago esan ba. Ia aldatuten diran okerrak, eta alaitasuna eurekaanatu.

## GABON-URTE BARRI

Sendi arteko jairik ospatsuen laster dogu. Josu alisuaren jayokunde urte urrena. Soterritik ate, urrunian bizi diran anai eta Euskotar guztiyori, agur zorianstu eta biozkor bat opa deusubet. Ez gara inoz aztuko, urrunduta, baitegian eta gexorik zagozien danokaz. jNoz abestuko dogu alaitasunez «Ato, ato, mutil etxera...»!

## URKIDI

## MATTERHORN-CERVINO

Aosta penaz utzita, Grand-Saint-Bernard bizkara igaroaz, Suizan sartu giñan eta gaberako Martigny-rra jo. Uri onetan gaur egin ondoren, berriz ere kilometro-ekin arduratzeko, Valais barna Visp erri-tik igaro eguerdia baño len.

Lizardik zion, «...egaztia banintz, gañik-gaño neubilke!». Mendizaleok berriz, ain amesariak gera eze, maiz gabiltza, gure ueste amezkoetan, gallurak zear. Gure aspaldiko ibilliretzak, oroitzapen-zaleak gera, ta Calderon-ek zion bezela, bizia ametsa bada, ametsa bizia noski.

Orrela, Visp-etik igarotzean, Grimsel-era bidean, joan zan urteko oroitzapena zetorkidan burura, ametsa balitz bezela. Aurten egualdi txarrak mendi-gañak de bekatzeten badigu ere, igazko urtean ongi aprobetxatu genituan inguru oietako ibille-rak, eta beren artean Cervino edo Matterhorn-era igo giñan egun aiek.

Mont-Blanc-etik jexita, biaramun ar-taldean, atera giñan Chamoniix-tik ta Visp baño gorago gelditu giñan, Saint Nikolai dalako erriko batean. Zermatt-era ez baita bide-zabalik, ta mendiko tren bat artu genun an bertan, Zermatt erriari igotzeko.

Zernatt-en arkitzen da Alpes guziko mendirik politena, izen aundienekoa ta sa-rriri Suiza-ko egutegietan ikusi deguna: Matterhorn edo Cervino izenarekin ezagu-tzen dana. Zernatt-ek 1616 metro ditu eta bere gañekaldean erpin, zorrotz, jasotzen da Matterhorn bere goi-neurria 4477 metro ditualarik. Bere gallura oñekin zapaltzea da Europa guziko mendizaleen ametsa.

Mendi onek, alpinismoaren kondairan beltzue asko egin ditu. 1865-garren urtean, Whymper-ek antolatutako zazpi la-gunaeko ezpedizioak menperatu zuan le-nengo aldiz; ta beruntzokan, gallurrik laster, zazpiretatik lau amildu ziran. 1300 metro berago arkitu zuten edortza. Ta iru-retatik bat oraindik ezta inork arkitu. Uste da, txiki-txiki eginda aldeniduko zala.

Ordurarte ospetsua ba-zan urte askoan gizonak menperatu ezinik zebiltzelako, or-dutik onera ospetsuago egin da bere izena. Gaur, oraindik ere, mendizale teknika au-rreratua egonarren, noizikpeinean izaten dira eriotzak. Ala ere, mendizale gogoaren-tzat ezta eragozpenik, eta, urtero, eundak-ak igotzen dira bere gallur altura. Orre-gaitik, atseginez oroitzen naiz igazko egun aietzaz.

Zernatt-en «camping»-ean lo egin on-doren, Goizean erriko kaleetan zear ibilli giñan bazterrak ikusten eta mapa on bat arkitzen. Alpinista gidariak izaten dira es-kinika, baña oso garestiak. Ta, gure bol-tzilloentzat Alpes-era joatea ere ezta gutxi.

Beraz, bazkari baten ondoren, Lussarreta, E. Ojanguren, Hajar ta laurok atera giñan oñez gaberako Hörnli errefojura el-tzake. Biderik geiena teleferikoan egin di-tzake, baña au ere oso garestia da eta le-nengo partea lau kamarra dabez, erdian dagoan estazioraño oñez joan giñan ordu-bete pasatuko bidean eta andik goikora te-leferikoan. Goiko estazio au Schwarzsee da, 2582 metro ditu, ta bertatik Hörnli-ko errefojura (3260 m.) orduoterdi pasatu egin genduzen.



Biaramunean, goizaldeko lauretan, a-tera giñan errefojio onetatik linternekin ar-gi egiñaz. Aitz-ertz batean dago elurrez inguratutik eta eskerrak elurraren zurita-sunari gaur ezta izaten orren illuna. Whymper ber-berak jarraitutako bideari ekin genion, baña ezgiñan bakarrik: best-e ogeitamarren bat alpinista ere, gurekin batera xamar atera ziran errefojio beretik gallurterako asmoetan. Bost edo sei nazio-takoak giñan naasturik, alkarren izkunt-zak ulertzen ezgizutela. Abentura batera baño erromeria ginjoazen itxura geigao genun, angoo soka, piolet, kranpoi ta ilte-ta elurtzarako jantzi bereziegaitik ez balitz.

Lenengo parteak errez igotzen dira. Bearrezkoa da eskuakin ormeri oratzea, naiz ta errezta izan. Arri ustela da eta Kontuz ibilli bearra da zeri ta zelan oratzen zaion. Unetan, toki gaitzagoak arkitzen dira, eta oietan, ainbeste giñalarik, txan-dan jarri bear izaten giñan. Orrelako to-ki batean, gizajo itxurazko bi ingelesi-kin zijoan mendi-gidari batek aurrea ar-

tu nai zidan alde batera bultza egiñaz, baña ni ere aman semea izaki, eta bes-tera bultzatu nuen. Ta, orroaka asi zan: «Mi Zermatto!» esanaz. Guretariko ba-tek eztekin euskerarik eta erderaz min-tatzek giñalarik, italiarrak giñala edo iduritu zitzaion. «Mendia irea al dek?», esan nionean euskeraz, arrituta bezela gelditu zan. Ta gu aurrera.

Egusentia baetorren argi apalez, ta ordurako sakabanatuz gindoazen geroago ta sakonago zijoan abiltgei batean go-runtz.

Mendi erdian igoera gaitzagoak asi ziran, eta sokekin akarri lotu bearra izan genun, obeto laguntzako. Andana bat aurreratuz zijoan, baña alpinistatik gei-nak gu baño polikiago zijoazten eta arrunduz agiri ziran, baña «Zermatto» ere, bere gizajo biak arraztaka zeramaz-kiala.

Frontoia bezelako orma baten aurrean arkitu giñan, bat-batean. Eta, eregi bat-znek aprobetxatuz, beatz-puntentzako eldu-leku juxtuak arkituz igo giñan gañekaldera. An egoan Solvay-ko txabola, bear-ordu larrietarako edo ekaitzetik gor-detzeko egiña; 4003 metroan dago.

Toki artatik gallurterako bide erdia da mendiak duen unerin txarrena. Ez bakar-rik aitzentan gorako igoera gaitik, baizik, elur-izotzu artean dalako aurrerako gu-zia. Tokirik txarrentan sokak jarrita daude, laguntzako. Gaitza baño okerrago bertako arriskua da. Argi ibilli bearra da, labankada bat naihoa litzake itxante ba-teen milla metro beerago gelditzeko. Ala ere, lasai ari giñan galluraren pozean. Sokekin biñan lotuta giñan, Lussarreta ta ni aurretik eta atzerago zetoztela Eli Ojan-guren eta Hajar.

Aurreko egunetan egindako mallak aprobetxatuz joan giñan izotzean Uste gabe okertzen giñan unetan bakarrik izaten genuan pioletakin izotza mallatu bearra, batzuetan eskuntzat eta urrien-go oñentzat boxkak egiñaz.

Poliki-poliki, larritasunik gabe, goize-ko zortziterdiarako eldu giñan gallurre-ra. Whymper-ek esan zuan bezela: «mundua gure oimpean dago».

Ez zan otz aundirik eta burnizko gu-rtzuearen aspian ixeri giñan zerbait ja-teko. Itali aldera begira, aspian Aosta zoragarria genuela.

Orain, Oberwald-dik Matterhorn-ri be-gira, ametsa iduritzen zaidan gallur arte-ko txolarte irta.

J. SAN MARTIN

## LABUR

**BILBAO** Bizkaia'ko Diputazioak era-bakia artu 50.000 peseta eskuratzeko Euskaltzain-dia'ri, Resurrección Maria Azkueko zenaren iztegiaren osakizun eta argi-taratze lanetarako.

**BERGARA** Uri onetan Maria'ren Mi-rabeen komentu berriko lenengo arri ipintzea egin zan, egintza onen buruzagitzan Berezartua gure Jaun apezpikua ego-nik. Eginkizun ontaroko lur-saila Jaun Xabier Untzetako gure adiskide onak ururrik emana izan da. Beronen luze-zabalak 1.500 metro lauko egi-ten du.

**ERRETERIA.** Iri ontako Udale-txeak erabakia artu du 200.000 pesetako diru-laguntasuna ematea Zamalabide deritzan parajeen (Oiarzun eta Asti-garraga arteko kamiño-gallurra)

baserri-elliza bat egiteko. 1959'garren urtean obra onen presupostua 982.596,39 pesetetan egin zan eta orain 1.250.000 pesetetan beriritua izan da. Eginkizun au aurrera erama-na izateko auzoalde artako famelia bakoitzak illeko 100 peseta pagatu bearko ditu eta gainera auzolanean jardun bearko dute. Probintziako eta Iri batzuetako instituzioen diru la-guntasun agintzaz ere ballatuko dira.

**ONDARRABIA** Aideportu onetan ez-tago mugimendu aundi-aundirik, bai-ñan ala ta guziz ere aurtengo urtean 2.000'tik gora izan dira Madrillekiko alde-lerroan ibillak direnak. Instalazi-ño zabaltzeak egin dituztelarik, alde-lerro bat Londres'ekin ezartzeko-eta diran, beste bat Barzelona'rekin eta irugarren bat Mallorca'ko Palma'rekin.

**ERRETERIA.** Joan den Azaroan Iri onetan izan dira: 18 jaloza, 13 ezkontza eta 14 eriotza. Aurtengo urteak kopu-

ru auek eman ditu orain arterakoan: 202 jaloza, 136 ezkontza eta 162 erio-tza. Beste errialdeetatik Iri ontara eto-riarik diru austengoz 1.657 pertsona, gixa onetan: Ilbeltzean 120, otsai-lleean 123, epaillean 115, jorralleean 117, malatzean 167, garagarillean 123, uztaillean 133, Iaguillean —abuztu— 150, agorrillean 146, urrillean 253 eta azaroan 210.

**AMEZKETA.** Uri onetako elizan or-ganu berriaren montatzeari ekin diote. Or-ganu au Amezetako eliztar guzien diru-laguntasunez errirafuta izan da. Garai batean Amezetarrantzat amets uts zena, erreallitate bizia biur-tu da.

**IRUN.** 1962'ko ilbeltzaren lenengo-tik urrillaren 31'raño, Irun'go Aduana - Administrazioak 2.135 milioi peseta bildu ditu merkan-tzia zerga-legez. Igaz, denbora be-reen, 1.750 milioi peseta atzeman zi-tuen. Gelagopena, ikus ditekenez, aundia da.